

OÑATIKO EAJ-PNVREN UDAL-TALDEAREN HELBURUA DA BERDINTASUNAREN ALDE GENERO DESBERDINTASUNAREN AURKAKO NEURRI ERAGINKORRAK BULTZATZEA

- **Ildo horretan, 2017 eta 2018. urtetako aurrekontuetan EH Bilduren udal gobernuari aurkeztutako Oñatiko enpresetan sustatzeko Erantzunkidetasun Planaren proposamena berretsi du udal-talde jeltzaleak.**
- **Halaber, talde jeltzaleak enpresetan genero ikuspegia txertatuta izango duten kudeaketa aurreratu ereduak bultzatzea proposatzen du; horrela, kontziliazio eta erantzunkidetasun neurriak sustatuta genero desberdintasunekin (soldata, lan promozioa, sarrera ..) amaitzeko.**

Martxoak 8an Emakume Nazioarteko Eguna ospatuko da. Horregatik, Oñatiko EAJ- PNVek emakumeen berdintasun eskubideak aldarrikatu ditu beste behin ere. Oñatiko gizon eta emakumeak arlo guztietan (ekonomia, politika, familia, lana, hezkuntza...) aukera berdintasuna izateko ekintza eta akzio eraginkorrak ezartzeko eskaera berretsi du Oñatiko EAJ- PNVeko udal- taldeak.

Lan arloan, 2017 eta 2018. urtetako aurrekontuetan EH Bilduren udal gobernuari Oñatiko enpresetan sustatzeko aurkeztutako Erantzunkidetasun Planaren proposamena azpimarratu du EAJ-PNVk. "Erantzunkidetasun eza eta bizitza, familia eta lana kontziliatzeko arazoak daude lan-esparruan emakumeek sufritzen dituzten lan diskriminazio eta soldata arrailaren oinarrian; eta emakumeen garapen profesionala oztopatzen duten arrazoi nagusiak ere badira" azaldu dute EAJ- PNVeko kideek. "EH Bilduren gobernuarentzat, lan- esparruan berdintasunaren aldeko akzio eta ekimenak proposatzen dituzten Planak lehentasunezkoak izan behar direla uste dugu", gehitu dute jeltzaleek.

EAJ-PNVren udal-taldearen hitzetan "orain arte, lan arloan, kontziliazio neurriak zaintza ardurak erraztera bideratu dira, eta ia beti, emakumeek hartu dituzte ardura horiek". Horregatik, aldaketa beharra dago "Pertsonen eta etxearen zaintza emakumeen ardura soilik izan ez dadin, ezinbestekoa da enpresetan kontziliazio erantzunkidea hobetzeko bide berriak ezartzea (ordutegi malguak, oporrak, lan-txandak aukeratzea, telelana, baimen eta lizentzia bereziak, laguntzak); horrela, emakumeekin berdintasunean, pertsonen eta etxearen zaintza, eta arduetan, gizonen parte hartzea sustatuko da".

Ildo honetan, EAJ-PNVeko udal-taldearen ustetan "ezinbestekoa da enpresetan genero ikuspegia txertatuta izango duten kudeaketa aurreratu ereduak bultzatzea, non enpresaren kudeaketa- ardatza pertsonak izango diren; horrela, kontziliazio eta erantzunkidetasun neurriak sustatuta genero desberdintasunekin (soldata, lan promozioa, sarrera ..) amaitzeko". Bide batez, Eusko Jaurlaritzak guraso-baimenak parekatzeko egindako proposamen berritzailea txalotu du udal talde jeltzaleak. "Funtsezkoa da administrazio publikoak erantzunkidetasuna sustatzeko neurrien bultzatzailea izatea, berdintasuna denon ardura baita " amaitu du Oñatiko EAJ-PNVren udal taldeak.

OÑATIKO EAJ-PNVren UDAL TALDEA

Oñatin, 2018ko martxoaren 6an
